

Kutxabankek RF Horizonte 21 fondoa sortu du, % 2,21eko UTB errentagarritasun helburuarekin

- **Kapitala Espainiako zor publikoan inbertituko du batez ere, 20 hilabete inguruko inbertsio epealdiarekin**

2024ko apirilaren 17an. Kutxabankek errentagarritasun helburua duen inbertsio fondo berria jarri du merkatuan, **'Kutxabank RF Horizonte 21 FI'** izenekoa, batez ere Espainiako errenta finkoan inbertituko duena, errentagarritasun erakargarriarekin.

Finantza produktu berriak **epemugan hasierako inbertsioaren % 3,76ko errentagarritasun helburua aurreikusten du**, hau da, **% 2,21eko UTB** errentagarritasuna, beti ere inbertsioa i 20 hilabete inguruan mantentzen bada, mugaeguna 2026ko urtarrilaren 31n ezarri baitu. Beraz, **'Kutxabank RF Horizonte 21 FI'** egokia da errentagarritasun helburu ezaguna duten bezeroentzat.

Merkatuan harrera ona izan ondoren, jaulkipen honekin errentagarritasun-helburua duten funtsen eskaintza zabaltzen jarraitu du finantza Taldeak. Urteko lehen hiruhilekoan sarrera garbi gehien izan duen **hirugarren taldea** izan da Kutxabank.

Kutxabanki buruz

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako finantza erakunde nagusia da. 700 bulego inguru ditu, jatorriko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulegoen sarea du, eta Andaluzian, Madrilan eta Katalunian presentzia nabarmena du. 5.000 profesionaletik gorako lantaldearekin, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sisteman kaudimen onena duen bankua da, eta Europako arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.